


Hautzaro Ikastolako Aldizkaria

TXINPART

1997 Urria-Abendua 9. Zenbakia





Argazkian
ikusten
duzuen hau
gure Sherlock
Holmes
berria da.

Beñat
Badiola
Zorionak
Beñat!



AURKIBIDEA

⇒ HAURTZARO INFORMATZEN

97/98 ikasturteari ongi etorria
Idazkaritzako berriak
3 urteko haurrak
Oiertzori agurra
Kaixo Aitor
Jantoki berria
Informatika
97/98ko ekintza estraeskolarrak
Denok putzura
Santo Tomas
Visa ikastola

Zatozte
Ipui batzuk
Bianditz

⇒ GU ERE KAZETARI

Karhaix: un voyage à l'inconnu
Elkarrizketak:
Mikel Garmendia
Ramon Gorrotxategi
Juan Ojanguren

⇒ GEHIAGO JAKIN DEZAGUN

Gabonak eta jostailuak

⇒ HATZAK BETE LAN

Eleaniztasun goiztiarra
Oiertzun ezagutzen
Alkatearekin harremanetan


⇒ NAHASTE BORRASTE

Txistekak
Joku matematikoak
Zenbaki jokuak

⇒ AGENDA

HAURTZARO INFORMATZEN

97/98 IKASTURTE BERRIARI ONGI ETORRIA



Bazen behin batean alde egin zuen uda bat. Itsasoaz, mendiaz, errekaz gozatu genuen uda bat. Uda bat non lagun zaharrek aurkitu, postalen bat bidali eta aterki bat ere erosi genuen.

Eta guztiok urtebete gehiago izango bagenu bezala, 1997/98 ko ikasturtea hasi dugu. Berriz ere topo egin dugu ikasle, ira-

kasle, guraso, lagunak, elkarriketak, ekin-tzak, jolasak... denon artean lurrin berezi bat osatzeko. Gure ikastolaren lurrina.

Eta horrela, gar eta kemen handiz, berri-ro ere martxan jarri gara. Ikasturte ona izango da, horren alde gaude.

Haurtzaro
gogoz erantzun luzaro!!


IKASTARO HONETAN

Idazkaritzan ez ohizko aurpegi batekin egin dugu topo. Lehendik irakasle bezala lan ordu ugari ikastetxe honetan egin badi-tu ere, oraingoan ROXALI OTEGIK idazkari-

tzako zenbait lan beteko ditu. Beraz gure artean izango dugu.

ONGI ETORRI ROXALI!





HAURTZARO INFORMATZEN

3 URTEKO HAURRAK

Aurten ere etorri zaigu 3 urteko neska-mutil kuadrila bat, dena alaitzeko asmoz beren jolas eta kantaz.

Adiskide pizkorrak eta gozoak direla erakusten dute berain asmoak, ideiak eraikiz, karrera eginez...

Ongi etorria denori eta horrela jarraitu ezazue!

Aizpuru Alaez, ENEKO
 Arbide Ostolaiz, IRUNE
 Arrue Aristegi, MIKEL
 Benitez Aranburu, NAIARA
 Cabornero Darceles, IRATI
 Cachafeiro Torrubia, AINHOA
 Cejudo Lozano, IRIS
 Claver Roma, HAIZEA
 Egiguren Aizpuru, IZAN
 Eizagirre Txurio, JOKIN
 Elorza Otaegi, LAIDA
 Estebaranz Iguaran, IAN
 Etxeberria Irastorza, UNAI
 Etxebeste Lizaso, IÑIGO
 Galardi Iñarra, ERLAITZ
 Garcia Alonso, IMANOL
 Gaztelumendi Marquinez, ANDER
 Gaztelumendi Martinez, JON
 Ibarguen Alzugaray, AINHOA
 Idarreta Cardona, MIREN
 Imaz Sarasola, MANEX
 Iragorri Aizpuru, ENEKO
 Izargarai Macias, IORITZ
 Lekuona Arruti, IBAI
 Lizarraga Garmendia, ANE
 Lizasoain Ezeiza, ADUR

Loiola Irulegi, ARRATE
 Lujan Montero, KOLDO
 Martin Blanco, UXUE
 Mendicoa Lecuona, IRAIA
 Mitxelena Gonzalez, GORKA
 Olarte Lopez de Luzuriaga, ALAITZ
 Otamendi Galardi, JON
 Perez Cruz, AMAIA
 Perez-Larraga Beratarbide, GOIHAITZ
 Retegi Oiartzabal, MIREIA
 Roteta Artuzamunoa, MADDI
 Sarasti Bengoetxea, OIER
 Sasiain Esnaola, AMAIA
 Sein Iriarte, LANDER
 Susperregi Iragorri, ANDONI
 Telletxea Arriba, JULEN
 Toledo Retegi, JON
 Zabala Lekuona, JOSEBA





OIARTZORI AGURRA

“Oiartzo” gure ikastola berrian lanean jo ta ke aspaldi hasiak dira Batxilergoko gure ikasleak eta dagoeneko lehenengo egunetako urduritasun, irrika eta itxaropenak ahaztuxeak izango dituzten arren, ez legoke gaizki irailaren 17an, ikastolaren aurkezpen ofizialaren ekitaldian euren ordezkariak ikasturte berrietarako bertsotan agertu zituzten itxaropen, borondate eta nahiak gogoraraztea. Hona hemen orduan botatakoak:

- 1) Udara baino gauza hoberik mundu hontan ba ote da?
Baina aurtengo honek jadanik gertu dauka bukaera.
Udara hontan patxara osoz guztiak ibili gera;
espabilatu beharko dugu denok bihartik aurrera.

(Jon Martin)

- 3) Gure “Oiartzon” egin beharra makinatxo bat (ah)alegin, maixu ta ikasle denok batera lanean gogor eta fin.
Hemen euskeraz ariko gera etxean bezala berdin,
gaurko ikasketa bihar bizitzan oinarri suertatu dedin.

(Eneko Ezeiza)

- 5) Bromak utzita, norbait haserre jarriko zaigu bestela,
nire ustea azaldu nahi dut hemen ahal dudana bezela.
Esan digute hemengo maixu denak jatorrak direla,
ederki asko pasako degu lana egiten honela.

(Iker Goia)

- 2) Ikasturtea hain goiz hastera ez zaigu gustatu asko baina halere, lan egiteko gogorik ez da faltako.
Haurtzarokoak oso pozik ez gaudela esan beharko Oreretako eroetxera bidali gaituztelako.


(Iker Goia)

- 4) Etxeko lanak ta azterketak, berriz rutina berdina; udaran askoz hobeto geunden ez al da gauza jakina?
Ikasle ta irakasleak egin behar (ah)alegina ikasturtea suertatu dadin guztiontzat atsegina.

(Jon Martin)

- 6) Orain esan det gauza hotza ta baita serioa ere,
gure barruko pentsamenduak esan beharrean gaude.
Gauza bakarra jakin nahi degu ta esatea hobe,
kurtso guztia nola aprobatu batere ikasi gabe.

(Eneko Ezeiza)




JANTOKI BERRIA

Orain arte ametsa izan dena, ikasturte honetan errealitate bihurtu da: **Haurtzaro ikastolako jantoki berria.**

Jantoki hau Oiartzun herri osoaren auzolanari esker daukagula esan dezakegu, izan ere, jantokia ordaindu ahal izateko, **Kilometroak 92**an ateratako sosak erabiliko ditugu. Ez zen lan makala izan, ez, orduan egindakoa, emaitzak oraindik ere ikus daitezke.

Jantokiak harrera gela, jangela eta sukaldea ditu. Janaria bertan eginga izango da. Guztira, 120 ikaslek batera bazkaldu ahaliko dute. Bazkaltzeko bi txanda egiten direnez, gaur egun jantoki zerbitzua erabiltzen duten 180 ikasleek aise bazkalduko dute. Orain arte bezala, arratsaldeko 14:30etako txirrina jo arte zaindari batzu izango dituzte ikasleek.

Besterik gabe **on egin!!!** bazkaltzen gelditzen zaretenoi, eta zorionak denori Jantoki berri hau denon ahaleginari esker eraiki dugulako.



KAIXO AITOR

KAIXO AITOR:

LAISTER OLENTZERO GURE ETXEETARA DATOR. HONEZ GERO ZU

BERE LAGUNA EGINGO ZINEN. ESAN IEZAIOTZU GURE PARTETIK OSO

JATOR GABILTZALA ETA ESKATUTAKO OPARIAK EZ AHAZTEKO, AHAL

DUEN GUZTIA EKARTZEKO.

MILA ESKER AITOR

INFORMATIKA

Ikasturte honetan bigarren informatika gela zabaldu berria dugu ikastolan. Horietako bat Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago, eta bertan Axelko, Otsoko eta Beleko proiektuak sakontzen dituzte.

Berria den bigarren gela, berriz, DBH eta BBBko ikasleei zuzenduta dago bereziki. DBHko lehen zikloan, informatika ikasleen ikasgai bezala lantzen da. Bigarren zikloan informatika ikaslaro desberdinetako bitarte instrumental egokia bihurtuko da.


HAURTZARO INFORMATZEN



97/98 IKASTURTEKO EKINTZA ESTRAESKOLARREN ESKaintza

KIROL EKINTZAK	TALDE KOPURUA	IKASLE KOPURUA
Benjaminak	2	31
Alebinak	4	55
Futbola	3	45
Saskibaloia	2	30
Kenpo Kay	1	18
Sambo	1	31
Atletismoa	1	75
Pilota eskola	1	71
Igeriketa	1	37
Kirol ekintzak guztira	16	393
KULTUR EKINTZAK	TALDE KOPURUA	IKASLE KOPURUA
Dantza eskola	7	85
Bertso eskola	1	9
Pandero	1	13
Trikitixa	1	16
Txistua	1	10
Antzerkia	2	22
Plastika/Eskulanak	1	6
Marraskia/Pintura	1	5
Argazkigintza	1	7
Jolas txokoa	1	11
Dantza garaikidea	2	15
Kultur ekintzak guztira	19	199
IKASTAROAK	TALDE KOPURUA	IKASLE KOPURUA
Xakea	1	12
Urpeko iharduerak	2	16
Izotz irristaketa	1	7
Piragüismoa	1	4
Ikastaroak guztira	5	39
GUZTIRA	40	631





HAURTZARO INFORMATZEN

8

DENOK PUTZURA!

PLISTI-PLASTA, PLISTI-PLAST...

Aurtengo urrian, L.H.-ko 1. mailako neska mutilak igeriketako ikastaro bat egin dute. Baita gustora saiatu ere igeri ikasten!

Kurtsoan zehar L.H.-ko 4. maila arterainoko ikasleentzat igeriketa ikastaroak antolaturik daude.




IDEA! - ELENIO ER LABAZ HESIONE

Abenduaren 21ean ospatzen den jai eguna dugu Santo Tomaseko feria. Jatorriz, baserrietako jabeek errenta ordaintzera Donostiara jaisten ziren baserritarrek, bertan bildu eta feria egiteko aprobetxatzen zuten eguna izaten zen. Berehala hartu zuen ospe eta izena, eta beste herritara ere zabaldu zen: Bilbora...

Azken urteotan gero eta garrantzi handiago hartzen ari da eta ondorioz, gero eta eskaintza ugariagoak izaten dira, postu eta ekintza jostagarrietan, hala nola, artisauen erakusketak, txorimalo lehiaketak, ganadu, hegazti eta barazkien lehiaketa... Baina zalantzarik gabe, zerria izan ohi da festa honetako errege, plazara ikusminez eta eskuartean bokadilo eder bat txistorra dutela, jende gehien erakartzen duen ikus-kizun nagusia.

SANTO TOMASEKO FERIA, "TXORIZUA TA OGIYA"



HAURTZARO INFORMATZEN



EUSKARA ETA BESTE IKASTOLAK LAGUNTZEKO HOR DUZU EGUNEROKO KILOMETROAK TXIKI BAT: VISA TXARTELA


ZER DA VISA IKASTOLA?

- VISA IKASTOLAK Edozein VISA txartelak bezala funtzionatzen du.
- Oiartzunen ateratako VISA IKASTOLA erabiltzen baduzu HAURTZARO IKASTOLAK Elkartasun Kutxari ordaindu beharreko dirutzari laguntzen diozu. Haurtzaro Ikastolak urteko 2,5 milioi pezeta ordaintzen du Elkartasun Kutxan.

DATU BITXI BATZUK

- Momentuz, 5.800 VISA txartel daude martxan Euskal Herrian. Txartel hauengatik lortutako dirutza 15 milioitakoa izan da lehenengo urtean.
- Oiartzunen bakarrik 100 txartel inguru atera dira.
- 15.000 VISA Txartel lortuz gero, urte osoko lana den KILOMETROAK bateko dirusarrerak lor daitezke.

Nolanahi ere, edozein argibidetarako Ikastolako Idazkaritzara jo ezazue.





GEHIAGO JAKIN DEZAGUN

10

GABONAK ETA JOSTAILUAK

Gabonak ate ondoan ditugu eta garai hau kontsumo garaia bihurtu zaigu bai arropa, janari eta nola ez jostailu kontsumo garaia bezala.

Aurreko ale batean gai hau aipatu genuen eta zenbait ezaugarri ere adierazi. Aurten gogoratu nahi dizuegu jostailua eta jolasa, ez dela gabonetarako bakarrik baizik eta urte guztirako izan behar duen gauza bat dela.

Jostailu bat aukeratzeko garaian ezaugarri hauek izan behar dituela kontuan hartu beharko genuke:

- 1.- Jostailua dibertigarria eta haurraren interesa iratzarri eta mantentzeko gai izan behar da.
- 2.- Fantasia, imaginazioa eta sormena eragin behar ditu.
- 3.- Haurraren hezkuntza mailara egokitu behar da.
- 4.- Erabilera arauak izan behar ditu.
- 5.- Estetikoa izan behar du, ondo egina.
- 6.- Ez du toxikoa ez arriskutsua izan behar.
- 7.- Erabilera ahalbide ezberdinak eskainiko ditu.
- 8.- Talde jolasa sustatuko du.
- 9.- Ez ditu sexuaren araberako ezberdintasunak egingo.
- 10.- Konponterraza izan behar du.
- 11.- CE/N ikurra agertu beharko du.



Pablo Uranga, 4 • 20.500 ARRASATE

Tfnoa: (943) 79 54 46

CUALIDADES DE UN BUEN JUGUETE

- 1.- El juguete ha de ser divertido y ha de mantener la atención del niño.
- 2.- Tiene que fomentar la fantasía, la imaginación y la creatividad.
- 3.- Tiene que ser adecuado a la edad del niño.
- 4.- Debe de llevar instrucciones de uso.
- 5.- El juguete debe ser resistente, duradero y con buen acabado.
- 6.- No ha de ser tóxico ni peligroso.
- 7.- Posibilitar diversas maneras de juego.
- 8.- Ha de potenciar el juego en grupo.
- 9.- No realizar distinciones en cuanto a sexo.
- 10.- En caso de estropearse deber de ser fácil de arreglar.
- 11.- La mejor garantía de seguridad es que el juguete lleve la marca CE.

GEHIAGO JAKIN DEZAGUN

KONTUTAN HARTU BEHARREKOAK



PUBLIZITATEARI DAGOKIONEZ

- Jostailuen publizitatea egiterakoan, zuzenak ez diren hainbat mezu zabal-tzen dira, gero, erosi eta jostailuak aztertzerakoan asko eta asko fal-tsuak direla konturatzen garelarik.

JOSTAILUEI DAGOKIONEZ


- Den-dena berez egiten duten jostailu automatizatuek sormena kamustu egiten dute.
- Hobe da jostailu gutxi izatea eta ditugunak ondo aukeratuak eta mota ezberdinetako izan daitezela.
- Jostailu bat ona edo txarra egokia edo desagokia izango da bere ezaugarrien arabera.

- Ez bereiztu neska eta mutilen jostailuak.

GURASOEI DAGOKIENEZ

- Motibazioa oso garrantzitsua da adin hauetan.
- Jostailuak erosteko behar duguna den-bora da.
- Jostailua ez da nahikoa beraientzat, zure parte hartzea edozein jostailu baino askoz garrantzitsuagoa da.

Jolasa da eta ez jostailua, haurrek eta guk behar dugun oparia. Hori eskatu beharko genioke Olentzerori.






HATZAK BETE LAN

12


ELEANIZTASUN
GOIZTIARRA

4 URTE

FISH




OCTOPUS



5 URTE

THE
MONSTER




The Monster. Cut out and glue on.

HATZAK BETE LAN



1. MAILAKOAK HERRIA EZAGUTZEN





2. MAILAKOEN KONTAKETAK

MIXI KATUA

Mixik ez dakit zenbat urte dituen. Baina badakit noiz eman ziguten. 1996an eman ziguten.

Mixi ugaztuna da. Lau hanka ditu. Bere amaren sabeletik sortu zen. Lehenengo katu arrak katu emeari hazi bat ematen dio katakumea jaio ahal izateko.

Egun batean: Albaitariak katu bat bide ertzean erdi hilda ikusi zuen.

Lehenengo sendatu eta gero guri abixatu ziguten bila etortzeko.

– Badakizu Izar, azkar joaten bagara albaitariarengana katu bat emango digute.

– Iufi! Esan nuen pozik.

– Baina ez esan Olaiari.

– Bale erantzun nion.

Mixi jarri genion izena, arra da, oraindik bizirik dago.

Baina borroka asko egiten ditu.

Baina guk oso ondo zaintzen dugu.

Ni eta ama gehiena maite gaitu.

Lehen beti nire ohean lo egiten zuen, eta nire jateko lekuan egoten da.

Orain gure izenak aurkeztuko dizkizuet.

Nire izena Izar da, nire amarena Estibalitz baina Esti deitzen diogu.

Nire aitarena Santos da, eta nire ahizparena Olaia da.

IZAR AZPIROZ IRAGORRI

BALE BATEN ISTORIOTXOA

BALEAK OSO GUTXI BIZI DIRA, GEHIENAK HEGO AMERIKAN BIZI DIRA.

BALEAK HAUNDIAK DIRA ETA UGAZTUNAK DIRA. ITSASOAN BIZI DIRA.

BALEAK ARNASA HARTZEKO ATERA EGITEN DIRA. BALEAK ZERGATIK

DIRA UGAZTUNAK? TRIPATIK JAIOTZEN DIRELAKO.

IZARO

HATZAK BETE LAN

ALKATEAREKIN HARREMANETAN



Aisegin handiz jaso nuen zuen idatzia, eta nere asmoa zuen ikasketan baliagarri izatea izango litzateke.

Oso zaila da esatea zeintzuk diren gure herriko baserri zaharrenak, herriak baserri asko ditu eta orain arte ez da ikerketarik egin baserri hauek datatzeko. Dena den, esatera zeharretan oinarrituz eta gure herriko osasun-zahar baten baitan, Fagoaga eta Garbuno izan daitezke gure herriko lehenengo baserriak.

Aipagarria dena eta kontuan izan beharrekoa Iturriotz Auzoan kokaturiko Torre etxea da, gaur egun monumentu historiko-artistiko bezala kontsideratua dagoena.

Besterik gabe, agurtzen zaituztet.

Oiartzun, 1.997ko Azaroak 17.

ALKATEAK,



HAURTZARO IKASTOLA (2.C)
Elorondo Kalea
20.180 OIARTZUN

Ikastola, 1997ko urriak
Alkate jaun Aguirerak: 28a
Gure Haurtzaro Ikastolara 2C koka
gara.

Baserri guztiak Ikastola ari gara.
Galdutako bat, zein izan ziren

Oiartzungo lehenengo baserriak? Ia.
Saguntza lehar dugu galdereari
erantzuteko.

Nor auzki derakagu informazioa?
Nori galdetu diezagakegu?
Nora joan gintezke informatzera?

• Eskerrik asko. Gure erantzunaren
zai gaudela. Adebaitaz 2Cko
ikasleak.

(Signatures and stamps)
Narek *(Signature)* ENKO *(Stamp)* Galoys *(Signature)*
Iñaki *(Signature)* Bena *(Signature)* Iñaki *(Signature)*



HATZAK BETE LAN

16

ZATOZTE!!!!





Zehabde basevia baja bratekin sortu zen.
 Pishanaka pishanaka basevia itxura
 ... ondoren, leioak, atea, teilstua
 gencien, untziak, alioak, belak, jaldia,
 ordiak, ahatak, ... Gure basevia
 basevia eta baratza hodu, eta eta
 basevia gencien, ...
 Gure basevia hodu gora basevia
 basevia delako izan da.
 esplikatu dena!

gar

basevia

gar

basevia

AZERI
 TALDA



Ikasturte honetan 3. Mailan gaude. Beste gauzen artean ipuinak egiten ari gara. Batzuk gure gisara asmatzen ditugu. Beste batzuk, hasiera bat eman ondoren bukaera asmatu dugu. Jakin nahi baduzue nolakoak atera zaizkigun hemen doakizue ale batzuk, ea gustatzen zaizkizuen.

IZAR BAT

Bazen behin izar bat. Eta erraldoia zen, hiru begi zituen eta begiak more kolorekoak. Begi kolore horiek mantentzeko ardiak jan behar zituen.

Artzainak ez zekien zer pasatzen zen eta egun batean artzainak ikusi egin zion izar erraldoiari eta orduan artzainak esan zion ez jateko ardi gehiago.

Eta orduan, munduko artzain guztiak bildu ziren bilera bat egiteko eta pentsatzeko izar horri nola lagundu.

Azkenean, artzain bakoitzak izarrari urtero ardi bana eman behar ziola pentsatu zuten. Milaka artzain zeudenez, gure izarrak urte askotarako janaria izango zuen eta izar hura oso pozik bizi izan zen.

Maialen

RIKARDO ERRALDOIA

UDAKO GOIZ BATEAN OKALA IZENEKO HERRI MENDITSU BATEAN
GAZTELU MIRESGARRI BAT ZEGOEN. HAN, RIKARDO IZENEKO
ERRALDOIA BEGI-BAKARRA BIZI ZEN. BAINA BEGI HORI KOLORETAKOA
ZEN. ETA KOLORE HORIEK MANTENTZEKO ARDI-OKELA JATEN ZUEN.
GERO ARTZAINAK HASERRETU EGIN ZIREN ETA ARDI-OKELA GEHIAGO
JAN ZUENEZ ARTZAINAK BILDU EGIN ZIREN, ETA ORDUAN
RIKARDORENGANA JOAN ZIREN. DENEN ARTEAN RIKARDO HIL EGIN
ZUTEN. GEROZTIK ARTZAINAK POZ-POZIK BIZI IZAN ZIREN.

AITZIBER ARAOLAZA
IDOIA BENGOTXEA

HATZAK BETE LAN

BIANDIZKO GOGOETAK




Oihanlekura joan ginen bazkaltzera eta hostoak zeuden. Han ibili ginen saltoka. Askok gustatu zitzaidan hostoetan jolastea. Berririo joango nintzateke jolastera.

Orain dela bi edo hiru aste Bianditzera joan ginen eta han jolastu, barre eta gauza pila bat egin genituen, baina bereziki ondo pasa. Han, hotza denek pasa genuen baina horregatik ez genuen gaizki pasa. Bianditzetik Oihanlekura jeitsi ginen eta han den denok oso oso ondo pasa genuen hostoen azpian zatorrak bezala. Zerritxoak bezala geratu arren ez zuen ajola denok arropa zaharrak eraman genituen eta.

Bianditzera joan ginenean hotz asko pasa nuen. Batzuetan gaizki pasa nuen eta besteetan oso ondo. Jateko garaian farrez lehertzen hasi nintzen nire gelakoekin. Gero mendi bat egin genuen hostoekin eta hemen oso oso ondo pasa nuen.

Bianditzen hotz asko egiten zuen eta kalabera bat aurkitu genuen. Arratsaldean zapelatza aurkitu genuen eta hegoa zauritua zeukan. Ikastolara ekarri genuen eta gero al baitariarengana. Al baitariak esan digu l galdora eraman dutela.

Bianditzera joateko lehenengo autobusean eraman gintuzten eta bero haundia nuen. Bianditzeko puntan berriz konjelatu nintzen. Gero Oihanlekura jeitsi ginen eta han bazkaldu eta hostoekin jolasean ibili ginen. Etxera hain zikinduak iritsi arren, ez dut inoiz egun hau ahaztuko.





HATZAK BETE LAN


20

ERLEAK HARRAPATZEN

Iazko kurtsoan Ramonekin piszina alde-
ra joan ginen insektuak aztertzerako mikros-
kopioa, lupa eta poto batzuekin.

Iban, Odei eta ni piszinatik gorantz abia-
tu ginen erleen bila. Nik, erleak hartzerako-
an potoaren taparekin erle bat aplastatu
eta hil egin nuen konturatu gabe. Beste
erleak hildako erlearen odola usaindu eta
niregana etorri ziren. Orduan, ni izutu nin-

tzen eta korrika hasi nintzen. Iban eta Odei
sasiatarara bota ziren erleekin izututa. Erle-
ek, arropan, zuri beltzean ikusten dute eta
nik kolore gutxiko jersea nuenez, erleak nik
harrapatu behar nituen. Odei eta Ibanen
arrokek, berriz, kolore asko zituzten eta
erleek errezago ikusten zituzten arropa
hauek. Horregatik bota ziren sasiatarara.



Gaizka (DBH 2)



Nous sommes des élèves de Secondaire (D.B.H.-2). Le mois de Juillet nous sommes allés à Carhaix (Karaez) en Bretagne, depuis un an d'apprentissage de la langue française. C'était aussi la première fois qu'on allé chez une famille bretonne: Toute une aventure pour nous tous! Voilà une **première partie** de nos souvenirs:

KARHAIX: UN VOYAGE À L'INCONNU

LE CENTRE D'ANIMATION JEUNES:



Le Centre d'animation jeunes



Le Chateau Rouge

C'est une maison pour être avec les amis. Elle est très belle et elle se trouve dans le jardin du Chateau Rouge. Dans une salle il y a un billard et un baby-foot. Dans une autre salle il y a aussi un magnetophone pour danser et pour écouter de la musique. Dehors, il y a un jardin avec des animaux. C'est très bien pour jouer et parler avec les amis.

Nos amies






BADMINGTON



Badmington au Centre Sportif de Carhaix.

Ici on peut voir comment nous jouons à badmington. Nous avons fait une grande compétition. Les champions furent Asier, Irene, Benjamin et Vanessa (championne en Bretagne).

TIR À L'ARC



Un jour nous sommes allés faire tir à l'arc. Nous nous sommes amusés beaucoup avec nos correspondants de Carhaix. Il était amusant mais aussi compliqué faire mouche plains.



ARMORIPARC



Voilà une exposition de
bicyclettes vieilles.
C'est très intéressant.

Ici tu peux voir la piscine:
la température de l'eau était
tempérée. Il y a trois grands
et un petit tobogans.



LABURPEN TXIKI BAT ARGAZKIZ-ARGAZKI

1, 2, 3.- Chateau Rouge -n kokatuta dagoen gazteen egoitza. Bertan, goizero biltzen ginen bretoiak eta gu egunari hasera eta bukaera emateko. Oso atsegina zen bertan egotea, dene-tik bait zegoen.

4.- Karazeko polikiroldegian badmingtonen jolastuz oso ondo pasa genuen.

5.- Nahiz eta zaila izan, gutako batzuk lortu genuen dianan jotzea inor zauritu gabe.

6, 7.- Armoriparc-en ur jolasetan asko gozatu genuen. Historian zehar bizikletak eman dituzten aldaketak ere ikusi genituen bertako museo batean.

HURRENGO TXINPART ALEAN BIDAI HONEN JARRAIPENA KONTATUKO DIZUEGU.



MIKEL GARMENDIA SUKALDARIARI ELKARRIZKETA

1.-Nongoa zara?

Goierrikoa, Baliarrain herrikoa.

2.-Zenbat urte dituzu?

34 urte ditut.

3.- Noiz da zure urtebetetzea?

Irailaren 19an da nire urtebetetzea.

4.-Ze izen du lan egiten duzun jate- txeak?

Urola jatetxean egiten dut lan.

5.- Diru asko irabazten al da jatetxe batean?

Lan asko egiten bada, bai.

6.- Noiz hasi zinen sukaldari lanean?

14 urte nituenean hasi nintzen sukaldari lanean.

7.- Zergatik aukeratu zenuen lanbide hau?

Asko gustatzen zitzaidalako.

8.- Zenbat pertsonarentzat prestazen duzu bazkaria egunero?



Gutxienez 100 edo 125 pertsonentzat prestatzen dut bazkaria egunero.

9.- Ze janari aukeratzen da gehiena?

Gehien aukeratzen den janaria arraina da.

10.- Ze janari gustatzen zaizu gehiena prestatzea?

Gehien gustatzen zaidana prestatzea postrea da.

11.- Ze janari guztatzen zaizu jatea?

Denetatik gustatzen zait jatea baina gutxiena patata tortila.

12.- Ze arropa jazen duzu janariak prestatzeko?

Zapata eta galtza urdinak eta txaketa txuria.

13.- Nolako sua erabiltzen duzu sukal- dean?

Erabiltzen dugun sukaldea gasekoa da.

14.- Ikusten al duzu sukalde debalde telebistako programa?

Bai eta asko gustatzen zait.





RAMON GORROTXATEGI IRAKASLEARI ELKARRIZKETA

Ramon Gorrotxategi Natur-zientzietako testu liburuaren egiletako bat.

Elkarrizketa liburuari buruz:

1.- Zerk bultzatu zintuen liburua egite- ra?

Duela 3 urte, erreformarako materiala prestatzen ari ziren eta biologo bat behar zutela jakinarazi zidaten. Parte hartu nahi nuen eta gonbidapen baten ondorioz, proiektu honetan lanean hasi nintzen.

2.- Noiz hasi zinen liburua hori egiten?

Duela 3 urte hasi ginen lan horretan. Beraz, D.B.H. etapa osorako testu liburuak egiten ari gara. Oraingoz, lehenengo hiru kurtsoak bukatu ditugu eta D.B.H.4 mailarako prestatzen ari gara.

3.- Denbora asko eskatzen al du liburu bat egiteak?


Bai, izugarrizko lana eskatzen du liburua egiteak. Denbora aaasko eta bakoitzaren denbora librean edo ordu libreetan. Aste bukaeretan, oporretan, afal ondoren...

4.- Nolako esperientzia izan da?

Hasiera batean denbora faltagatik oso gogorra egin zitzaidan, baina era berean aberatsa. Lan honekin gauza asko ikasi ditut.

5.- Gustora egin al zenuen liburua?

Bai. Nahiz eta oso momentu estresanteak igaro, talde lanean oso ondo moldatu garenez, gustoko esperientzia dugu.





6.- Nola sentitzen zara liburu hori argi-tataratu eta hainbeste pertsonak irakurri ondoren?

Edozein lan bukatutakoan, gustora sentitzen zara. Orain, irakasle eta ikasleen kritikak, praktikara eraman nahi ditugu.

7.- Gauza asko ikasi al duzu liburua egin duzun bitartean?

Lehenago esan bezala, talde lanean ibiltzearen garrantziaz jabetu naiz. Era berean, taldekideek asko lagundu didate eta liburuak egiteko eman behar diren pausoak ezagutu ditut: liburuaren sormena, irudiak, zuzenketak...

8.- Prest egongo al zinateke beste bat egiteko?

Hasieran pentsatutako lau liburuak bukatu ezker, atsedena hartzeko asmoa daukat.

Aurrerantzean, agian berriro beste proiektu batean has niteke.

ELKARRIZKETA BIOLOGOA IZATEARI BURUZ

1.- Txikitatik pentsatu al zenuen biologia izatea?

Ez. Txikitan ez nekien zer izango nintzen heldua izatean. Institutuan, Naturako arloak erakargarriak iruditu zitzaizkidan eta horrek bultzatu ninduen.

2.- Ikasle ona al zinen txikitan?

Eta zer da ikasle ona izatea? Normalean langilea izan naiz. Edozein arlotan (lanetan,

ikasketetan, kiroleetan...) esfuertzoaren bidez emaitza onak ateratzen saiatzen naiz.

3.- Zenbat urtetan ikasi duzu biologia?

Biologia karrera, berez, 5 urtekoa da. Biologia zientzia ez da inoiz amaitzen.

4.- Zer esango zenioke Natur Zientziak ikasi nahi dituen ikasle edo pertsona bati?

Oso karrera polita eta alaia dela.

5.- Zeintzilari/Biologo bezala, zein "hobby" dituzu?

Unibertsitatean nengoelarik, zoologia laborategian proiektu batean lanean aritu nintzen, karakolak eta armiarmak aztertzen, hau hobby bihurtu zen niretzat, baina gaur egun ez dut horretan jarraitzen. Batez ere, azkeneko 3 urte hauetan liburuek eskatzen duten lanengatik.

6.- Zure lanean zaudenean, gozatzen al duzu gaiarekin?

Bai. Lanean nagoenean, irakaskuntzan eta arloekin gustora nago. Nahiz eta batzuetan arazoak sortu.



JUAN OJANGUREN, SENDAGILEA IKASTOLAN

Aurten elikadura tailerra lantzen ari dira D.B.H.ko 1.eta 2. Mailako ikasleak. Elikadura eta nutrizio modu ezberdinak aztertzea da tailer honen helburu nagusia. Ondoren ikasle bakoitzak elikadura egokiena hauta dezan, osasuntsu bizi ahal izateko.

Ikasgai honen arduraduna eta irakaslea Antton Kazabon baldin bada ere, kanpoko zenbait adituk ere hartuko du parte gonbidatu modura, tailer honetan.

Horietako bat, Oiartzunen urte askotan sendagile izan dugun Juan Ojanguren izan da.

Ikasleek prestatutako galderei erantzuten saiatu zen ordu eta erdian, eta egia esan hamaika mezu interesgarri eman zuen gai honen inguruan.

Hona ondoren muestratxo bat:

- Gehiegi ez jan.
- Janari naturalak jan eta ez artifizialak.
- Gorputzaren aspektu fisikoa eta siki-koa zaindu.

- Kirola egin giharrak indartzeko, koordinazioa eta erreflejoak lantzeko, eta ez gizontzeko.

- Janaria erosi aurretik naturala den ala ez erreparatu; kalitate kontrola pasa duen ala ez begiratu; kaduzitate data konprobatu eta osagaiak aztertu.

- Ura asko edan gizakiaren gorputza hidratatzeko derrigorrezkoa delako.


- Egunero, gutxienez litro erdi esne edan.

- Esnea eta zerealak gosaltzeko ideale-na da.

- Ogia jatea beharrezkoa da.

- Digestioak ordu bete inguru irauten duenez eta denbora honetan odola hestetan konzentratzen denez, bat bateko hotzak digestioa moztu arazi dezake, honengatik dutxatzean edo bainatzean uretan poliki-poliki sartzea komeni da.





NAHASTE BORRASTE

TXISTEAK

Bi lagun elkartzen dira eta batek esaten dio besteari:

- Zuk zer eskatu diezu erregeei?
- Nik Barbie bat , mantel joko bat , soineko bat... eta zuk?
- Ba, nik, porro batzuk, hachis, heroina...
- Eta hori dena erregeei?
- Ez, gameluei.



Badoa seszientos bat poliki-poliki. Atzetik izugarrizko ilera duela kotxe guztiak bozina jotzen ari dira: po, po, po.

Halako batean gizon bat ateratzen da eta esaten du:

- Ezin al duk azkarrago joan?

Seiszientosekoak erantzuten dio :


- Zertarako joan behar dut azkarrago lehendabizikoa noa eta.



Bi gizon elkartzen dira eta esaten dio batak besteari:

- Nik zure aurpegi hori beste nonbait ikusi dut bada...
- Harritzen naiz. Nik beti leku berean eramaten dut.

NAHASTE BORRASTE



LOGIKA MATEMATIKA JOKUAK

Luisen amak bost seme-alaba ditu. Zaharrenak Ta izena du, bigarrenak Te, hirugarrenak Ti, laugarrenak To.

Ze izen du bosgarrenak?

Pentsa ezazu hegazkin batean zu bakarrik zoazela 250 km/h, 20.000 metrotara eta hotz-beroa 28° da. Ordu erdi igaro eta gero abiadura 40km/h jaisten da eta hoz-beroa 3° igotzen da.


Ze izen du hegazkineko gidariak?

Poltsikoan bi txanpon ditut eta bien arteko batura 30 pta-koa da. Txanpon horietako bat ez da duroa.

Nola liteke hau gertatzea?


UNIR LES NUMEROS

7	DEUX
4	SIX
1	NEUF
5	QUATRE
8	UN
3	DIX
9	CINQ
2	HUIT
10	SEPT
6	TROIS



TRACOVER


- Aidez le garçon trouver la fille.



SIGNÉ:

*Adrien
André
Eugène
Michel*






AGENDA

Hurrengo alean gai hauek aurkituko dituzu:

- INGURU GIRO ASTEA
- IHAUTERIAK HAURTZARON
- STA AGEDA
- HITZALDIAK
- UDABERRIA
- JANTOKIKO SUKALDARIEKIN HIZKETAN
- KARHAIX: UN VOYAGE A L'INCONNU - 2º PARTIE



HAURTZARO
ikastola



kutxa

fundazioa
fundación

